

ORDUTEGI MALGUA

PERTSONEN
eta ENPRESEN
mesederako da

ados gaude!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

LANEKO ORDUTEGI MALGUAREN ONUREKIN ADOS

Enpresetan ordutegi malgua jarriz gero, ekoizpena, adiskidetzea, kalitatea, lehiakortasuna, familia, prestakuntza, erantzunkidetasuna eta familia uztartu egiten dira. Pertsonen eta enpresen mesederako da.

Kultur aldaketa bati heltzeko garaia da, horri esker pertsonen bizi-baldintzak eta laneko harremanak hobetu egingo baitira; ondorioz, ekoizpen sarea hobetuko da eta enpresen ekoizpena eta lehiakortasuna haziko da.

LANEKO ORDUTEGI MALGU EUROPARRA

Lanaldi jarraitua edo sartzeko (goizeko 8etatik 9etara) eta irteteko (arratsaldeko 5etatik 6etara) ordutegi malgua izateak eta bazkaltzeko denbora murriztu eta ordutegi trinkoagoa izateak, pertsonen bizi-kalitatea hobetu egiten du eta enpresen ekoizpena hazi.

PERTSONENTZAKO ONURAK. ENPRESENTZAKO ONURAK

Kultur aldaketa egon dadin partekatutako akordiorako garaia da

Langileen eta enpresarien eta Administrazioaren artean partekatutako eta erantzunkidetasunezko konpromisoa abian jartzeko garaia da, pertsonen bizi-baldintzak eta ekoizteko sarea hobetuko dituen kultur aldaketa lortzeko.

Gizarte iraunkorra lortzeko garaia da

Gizartea iraunkorragoa da, sozialki bideragarria bada. Gizarte kohesionatuagoa eta iraunkorragoa lortzeko, beharrezkoa da laneko denboraren kudeaketarekin dugun borroka irabaztea, pertsonak familiaz, aisiaz eta garapen pertsonalaz erabat goza daitezen.

Uztartzea hobetzeko garaia da

Lanean igarotzen den denborak familiarako denbora baldintzatzen du. Uztartzeko politika egokia egonda, pertsonok familiarentzako eta seme-alaben heziketarako denbora izango dugu.

Laneko harremanetan kontzeptu malgua izateko garaia da

Laneko harreman atseginak eta lanean bizi-baldintza egokiak sortzeko gai diren enpresek bizi-kalitate handiagoa eskaintzen diete langileei eta beraien erakundeetan mantentzen dituzte adituak.

Laneko giroa hobetzeko garaia da

Laneko ordutegi orekatua da ongien baloratzen den alderdietako bat, horrek laneko giroa hobetzen du eta langileen gogobetetasun maila % 36,7an igotzen du.

Etekin eta bezeroaren arreta hobetzeko garaia da

Europar ordutegi malgua hartzearen ondorio positiboetako bat da bezeroaren arreta % 13 hobetzen dela.

Ekoizpena hazteko garaia da

Laneko ordutegi malgua duten enpresen ekoizpena % 23,3 hobetu da, lana egindako ordu bakoitzeko errentagarritasun handiagoa dute.

Lehiakortasuna hobetzeko garaia da

Beste herrialdeetan ordutegi malgua ezarrita, enpresen lehiakortasuna hobetu egin da.



PROGRAMA PILOTUA.

EUSKADIK LANEKO DENBORA KUDEATZEKO EREDU BERRI BATERANTZ EMAN DU URRATSA

Enpresa arrakastatsuek pertsona-aurpegia dute, pertsonekin egiten dute lana, ez langileekin.

XXI. mendeko enpresa lehiakorrek lan-harreman adeitsuak dituzte eta laneko giroaren kalitatea egokia da.

Euskadin ordutegi malgua ezartzeko proiektu pilotua hasi da 4 enpresatan -Bellota Herramientas, Euskaltel, Lazpiur, Vadillo Asesores- Europar herrialdeetako esperientzia arrakastatsuek denbora kudeatzeko modu berri, eraginkor eta errentagarriago hau gure artera ekar dezan. Erosoagoa eta atseginagoa. Uztartzeko errazagoa eta profesionalagoa.

Proiektu pilotuaren ondorioak aztertutakoan, pertsoneri eta enpresei emaitzen berri emango diegu, gizarteak eredu honen abantailak izan ditzan.

INFORMAZIO GEHIAGO:

IRRÄTIRAKO IRAGARKIAK ETA KARTELAK

Ordutegi malgua. Ados gaude.

